

Nafarroako Gobernua osatzeko legealdi honetarako hitzartutako Akordio Programatikoa, hizkuntza politikari loturiko konpromisoen artean, honako hau jaso zen: "Euskaren egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko".

2015eko azaroaren 25ean egindako bilkuran Euskaren Nafar Kontseiluak Euskarabidea-Euskaren Nafar Institutuak Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa, 2016-2019, egitea onartu du.

En el Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra en este legislatura, entre los compromisos relativos a la política lingüística, se recoge el siguiente: "Elaborar un diagnóstico completo y actualizado de la situación del euskera y diseñar por parte del Consejo del Euskera un plan realista, factible y eficaz, que será la base de la política lingüística que desarrollará el Gobierno".

En sesión del 25 de noviembre de 2015 el Consejo Navarro del Euskera aprueba la elaboración por parte de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera de un Plan Estratégico de la Política Lingüística del Gobierno de Navarra, 2016-2019.

BILKURAREN AKTA

Bilkuraren datuak

Organoa:	Euskaren Nafar Kontseilua		
Bilkura zk.:	2016/1		
Tokia:	Nafarroako Jauregiko Joaquín de Elizondo aretoa		
Eguna	2016/02/16		
Hasiera ordua:	9:05	Amaiera ordua:	10:35

ACTA DE REUNIÓN

Datos de la reunión

Órgano:	Consejo Navarro del Euskera		
Nº de sesión:	2016/1		
Lugar:	Sala Joaquín de Elizondo del Palacio de Navarra		
Día:	16/02/2016		
Hora de inicio:	9:05	Finalización:	10:35

Bertaratuak

Asistentes

Kontseiluburua / Presidenta:	Ana Ollo Hualde
Kontseiluko buruordea / Vicepresidente:	Mikel Arregi Pérez
Kideak / Vocales:	Pello Pellejero Goñi Mikel Aramburu Zudaire Naiara Ardanaz Iñarga Gabriel Imbuluzqueta Alcasena Andres Iñigo Ariztegi Irene López Goñi Imanol Nuñez Aldaz Mikel Belasko Ortega Orreaga Ibarra Murillo Mª Mar Larraza Micheltorena Patziku Perurena Loiarte Iosu Reparaz Leiza Garbiñe Urreizti Lezertua Jose Ramon Olano Etxabe Oskar Zapata Solano
Idazkaria / Secretaria:	Paula Kasares Corrales

Gai zerrenda

3. puntu- Euskararen Plan Estrategikoa: helburuak eta metodologia aurkeztu.

Orden del día

Punto 3º.- Plan Estratégico del euskera: presentación de los objetivos y la metodología.

Eztabaidak eta erabakiak

3.- Euskararen Plan Estrategikoa: helburuak eta metodologia aurkeztu.

Ana Ollo herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari andreak Nafarroako Gobernurako Programa hitzarmenean hizkuntza politika gidatzeko Plan Estrategikoa eginen zela ezartzen dela oroitara du eta horren gainean xehetasunak ezagutzeko, helburuak eta metodologia batik bat, Mikel Arregi Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari eman dio hitza.

Arregi jaunak hitza hartu du eta honela azaldu du: 2015-2019 legegintzaldirako Gobernurako Akordio Programatikoan jasorik dagoenari jarraikiz, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institituak plan estrategikoa prestatuko du Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren oinarria izan dadin.

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoak akordioan ezarritako printzipioak izanen ditu oinarri. Zeharkakoa izanen da, eta politika publiko guztietan eraginen du, baita gizarte arloan ere, eta progresiboa eta egoera soziolinguistiko desberdinetara egokitua. Plan hori eraginkorra, planifikatua eta ebaluagarria izatea bermatuko da. Xedea izanen du euskarari gizartean prestigioa ematea, askatasun eta borondatezkotasun printzipioetatik abiatuta.

Planaren ezaugarrietariko bat izanen da prestaketa prozesuan heritarraren partaidetza aktiboari emanen zaion garrantzia. Prozesu horretan Euskararen Nafar Kontseilua ere engaiatuko da. Prestaketa prozesuari buruzko informazio publikoa izanen da, eta leku emanen zaio heritarraren partaidetzari foro, gogoetarako mahai eta ekarpenen bidez. Kontuan hartuko da,

Deliberaciones y acuerdos

3.- Plan Estratégico del euskera: presentación de los objetivos y la metodología.

La Sr. Ana Ollo, Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales recuerda que en el Acuerdo Programático se establece la elaboración de un Plan Estratégico que guíe la política lingüística. Para informar sobre los detalles, objetivos y metodología del Plan, cede la palabra al Sr. Mikel Arregi, Director-gerente de Euskarabidea.

El Sr. Arregi informa que, tal como se recoge en el Acuerdo Programático de Gobierno para la legislatura 2015-2019, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera elaborará el Plan Estratégico que será la base de la política lingüística del Gobierno de Navarra.

El Plan Estratégico de Política Lingüística tendrá como base los principios marcados en el acuerdo. Será transversal, incidiendo en todas las políticas públicas y en el ámbito social, y será progresivo y adaptado a la realidad de las diferentes situaciones sociolinguísticas. Garantizará que dicho plan sea eficaz, planificado y evaluable. Tendrá como objetivo dotar de prestigio social al euskera partiendo de los principios de libertad y voluntariedad.

Un rasgo fundamental del plan será la importancia que se dará en el proceso de elaboración al hecho de contar con la participación activa de la ciudadanía. En este proceso también se involucrará el Consejo Navarro del Euskera. Existirá información pública del proceso de elaboración y se posibilitará la participación ciudadana a través de foros y mesas de reflexión y aportación. Se contará

orobat, zenbait alorretan lanean ari diren gizarte eragileen iritzia: administrazioa, hedabideak, alor sozioekonomikoa, hizkuntzaren transmisiua eta hezkuntza, kultura, gazteria eta kirola. Gainera, Euskararen Nafar Institutuko langileen partaidetza ere baliatuko da, planaren bitartez Euskarabidearen antolaketa eredua aztertu nahi baita, bere kudeaketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

Plan estrategikoa azterketa diagnostiko bat eginez hasiko da, euskarak Nafarroan gaur egun bizi duen egoerari argazkia aterako diona; hora oinarrituko duten adierazleek neurruko dute, batetik, hizkuntzaren erabilera, eta bertzetik euskararen egoera esparru publiko eta sozial desberdinaren. Adierazle horiek hasierako erreferentzia izanen dira bai Plana prestatzeko bai geroagoko ebaluaziorako, eta behin betiko Pana Euskararen Nafar Kontseiluari aurkeztuko zaio prozesu guztia amaiturik dagoenean.

Arregi jaunak kontseilukideei Plan Estrategikoaren gaineko dokumentazioa banatu die. Material horretan informazio xehea dago prozesuaz eta metodologiaz. Administrazioko hainbat unitaterekin kontaktu nahi dugu, bai eta herritarren parte hartzerako zerbitzuko teknikariekin eta antolaketa eta berrikuntza zerbitzuko teknikariekin. Horretaz gain, aholkularitza enpresa bat kontratatuko dugu prozesuaren kudeaketarako eta horretan lagunza emateko.

Planak hauek guztiak definituko ditu: xede orokorra, bermatu nahi diren balioak eta gogoeta bat eta barne nahiz kanpoko azterketa bat hizkuntzaren erabilera egoeraren inguruaren eta hiztunei aitortutako eskubideen inguruaren. Hain justu ere, azterketa horren gainean hasiko dira diseinatzen esparru desberdinaren modu errealistan gauzatu daitezkeen lerro estrategikoak, xedeak, ekintzak eta adierazleak. Horrekin guztiarekin batera, xedeak betetzeko beharrezkoak diren giza eta diru baliabideak egokituko dira. Metodologia parte-hartzalearen esparru horretan, jarduteko lerro estrategikoaren plangintza eginen da, hurrengo lau urterako hizkuntza politikaren plan orokorra garatu beharrez.

además, con la opinión de los agentes sociales que trabajan en diversos ámbitos como la administración, los medios de comunicación, el ámbito socio-económico, la educación y transmisión de la lengua, y la cultura, la juventud y el deporte. También se contará con la participación del personal del Instituto navarro del Euskera ya que está previsto que el plan analice el modelo de organización de Euskarabidea de cara a responder de la manera más eficiente en su gestión.

El Plan estratégico para avanzar en la normalización del uso del euskera, comenzará con un análisis diagnóstico basado en indicadores de uso de la lengua y de la situación del euskera en los diversos ámbitos públicos y sociales de manera que nos proporcionen una foto fija de la situación actual del euskera en Navarra. Estos indicadores servirán de referencia inicial tanto para la elaboración del plan como para la posterior evaluación del mismo una vez puesto en marcha. Una vez concluido el proceso, la versión definitiva del Plan será presentada a este Consejo Navarro del Euskera.

El Sr. Arregi reparte a los vocales del Consejo documentación sobre el Plan Estratégico. En ese material se aporta información detallada sobre el proceso y la metodología. Se contará con diferentes unidades administrativas y con el personal técnico de los servicios de participación ciudadana y organización e innovación. Además, se contratará una empresa para el apoyo técnico y la gestión del proceso.

El plan definirá el objetivo general, los valores que se quieren garantizar y una reflexión y análisis interno y externo de la situación de uso de la lengua y los derechos reconocidos a sus hablantes. Sobre este análisis se comenzarán a diseñar las líneas estratégicas, objetivos, acciones e indicadores que de manera realista puedan llevarse a cabo en los diversos ámbitos. Todo esto irá acompañado de una adecuación de los recursos humanos y económicos necesarios para cumplir los objetivos. Las líneas estratégicas de actuación se planificarán, en este marco de metodología participativa, de cara a desarrollar un plan general de política lingüística para los próximos cuatro años.

Behin betiko plana Euskararen Nafar Kontseiluari
aurkeztuko zaio, onets dezan.

El plan definitivo será sometido a la aprobación
del Consejo Navarro del Euskera

Akordio onartutzat ematen da behar den akta
honen behin betiko onarpenaren zain.

Acuerdo adoptado sin perjuicio de la aprobación
posterior de la redacción del acta.

Iruñean, 2015ko azaroaren 25ean / En Pamplona, a 25 de noviembre de 2015.

A handwritten signature consisting of stylized letters 'P', 'K', and 'S'.

Paula Kasares